

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KRIPANGO UDALA

#### **Kripango udal igerilekuetarako uretako bi sorosle izendatzeko deialdia eta oinarriak, 2026ko udako aldi baterako programaren barruan**

2026ko maiatzaren 14an, Kripango alkateak honako hau dekretatu zuen:

1. Kripango udal igerilekuetarako uretako bi (2) sorosle bitarteko izendatzeko deialdia eta oinarri arauak onestea, 2026ko udako aldi baterako programaren barruan.
2. Deialdia ALHAOn argitaratzea eta oinarri arautzaileak Kripango Udalaren egoitza elektronikoko ediktu taulan, aipatutako hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek dagozkien eskaerak aurkeztu ahal izan ditzaten eta oinarriak aurkaratu ahal izan ditzaten, egoki iritziz gero.
3. Udalbatzari ebazpen hau jakinaraztea hurrengo bileran.

Parte hartzeko eskaerak 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Kripan, 2026ko maiatzaren 14a

*Alkatea*

**JOSEBA FERNANDEZ CALLEJA**